tolosaldeko eta leitzaldeko
# hitza
ESKUALDEKO EGUNKARIA ▸ Larunbata ▸ 2007-01-06 ▸ V. urtea ▸ 1.055. zenbakia ▸ www.tolosaldekohitza.info

**ALEGIA ▸**

## Ana Jesus Ansorenaren lanak ikusgai



Jubilatuen tabernan hilaren 14ra arte ▸ 6

# Itxaroteak merezi du

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▸** Atzo egin zuten etorrera Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoek gaztetxoenen zorionerako

**JAIOTZA LEHIAKETAK ▸** Tolosan eta Iruran gazteek eginiko jaiotza irabazleak ere atzo eman zituzten jakitera ▸ 4-5









Tolosaldeko eta Leitzaldeko gaztetxoenak irrikaz egon ziren hiru Errege Magoak noiz etorriko zain. Desio duten oparia eskatzeko baliatu ahal izan zuten unea. MADDI SOROA/ESTI EZEIZA

**TOLOSA ▸**

## Xakelari onenaren bila, gaur Aurreran

Intsaustiren omenezkoan ▸ 2

**LEITZA ▸**

## Frontisek antolatuta, pilota jaialdia gaur Amazabal pilotalekuan

Bengoetxea VII.a leitzarrak binakako partida jokatuko du Armendarizekin ▸ 7

**TOLOSA ▸**

## Bihar amaituko da Shanti Txapelketa

Lau final jokatuko dituzte Usabalen ▸ 3

ZAS
soinu ikastaroa
Informatika musikala (Cubase).
Grabaketa eta masterizazio profesionala.
P.A. eta monitoreak
Eta abar
943 65 35 35
www.sointek.net

ANOETA ▸

## Afaria, kontzertua eta Txirrisklas Festa Gaztetxean

Anoetako Gazte Asanbladak ekitaldiak antolatu ditu gaurkorako. Afaria egingo dute Gaztetxean eta ondoren Txirrisklas Festa antolatu dute. Bertan, 23:00etan hiru talde ariko dira: Skamatxin, Rufus Rei eta Jo ta akatuko haut. Bestalde, Gazte Asanbladak gaur Anoetako Belodromoan presoen eskubideen defentsan burutuko den ekitaldian parte hartzera deitzen du.

ANOETA ▸

## Udal Liburutegian ohiko ordutegia etzitik aurrera

Eguberrien amaierarekin batera, Anoetako Udal Liburutegiak bere ohiko ordutegia berreskuratuko du. Etzitik aurrera, hilaren 8, arratsaldez izango da, beraz zabalik. 17:30etik 19:30era bitarte egongo da irekita liburutegia eta interneteko zerbitzua erabili nahi duenarentzat, 16:00etatik 19:30era.

ZIZURKIL ▸

## Lau ikastarotan izena emateko aukera

Zizurkilgo Udalak lau ikastaro antolatu ditu, hil honetan hasiko direnak. Dantza afrikarra martxoan bukatuko da eta ostiraletan egingo da, 20:00etatik 22:00etara (50 euro). Patchwork (asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara, 50 euro), eskulanak (astearteetan 18:00etatik 20:00etara, 50 euro) eta yoga (astelehen eta asteazkenetan, 15:00etatik 16:30era edo 18:30etik 20:00etara, 75 euro) ekainera arte iraungo dute. Izen-ematea Aurrera Plazako udal bulegoetan egin behar da.

TOLOSA ▸ KIROLAK

# Xakelari azkarrenaren bila ariko dira gaur, Aurreran

Jose Antonio Intsaustiren omenezko XX. Erregetako Xake Txapelketa jokatuko dute gaur, 10:00etan hasita, Aurrera elkartean; 09:30etik aurrera izen-emateak

IMANOL GARCIA



Iazko Intsaustiren omenezko Erregetako Xake Txapelketaren une bat. HITZA

Xakea gustuko dutenek urteroko aukera dute gaur bere dohainak erakusteko. Tolosako Aurrera elkarteak Xake Elkartearen laguntzarekin antolatzen du Erregetako Xake Txapelketa. Aurtengoa Jose Antonio Intsaustiren omenez egiten duten XX. edizioa izango da. 10 minutu gehienez irauten duten partida azkarrak jokatzen dituzte txapelketa honetan.

Parte-hartzaileak Aurrera elkartera (Santa Maria kalean) joan behar dira 10:00ak baino lehen, izena emateko. Nahi duen guztiak parte har dezake. Xakelari bakoitzak bost minutu izango ditu beharrezko mugimenduak egiteko. Beraz, gehienez partida bakoitzak hamar minutu iraun dezake. Horrek «erakargarritasuna» ematen dio txapelketari. 40 jokaldi kalkulatu ohi dira bataz beste partida bakoitzeko. Ondorioz, 10 segundo eskas izan ohi ditu xakelariak mugimendua pentsatu, egin eta ondoren erlojuari emateko.

Antolatzaileek gonbitea luzatzen diete xakea gustatzen zaien orori, bai parte hartzeko bai ikustera joateko ere. Iazko irabazlea Sabino Etxeberria tolosarra izan zen eta aurten ere aurkezteko asmoa azaldu du. Bera gainditzen saiatuko dira Tolosaldeko beste xakelari guztiak.

SABINO ETXEBERRIA ▸ EGUNGO TXAPELDUNA

## «Azkartasuna eta kalitatea uztartu behar dira xake txapelketa honetan»



HITZA

Zortzi txapelketa eskuratu ditu Sabino Etxeberria tolosarrak parte hartu duen dozena inguru alditan. Gaur jokatuko den txaplketan ere bera izango da faborito nagusia.

**Zuri irabaztera joango dira parte-hartzaile guztiak gaurko txapelketan.**

Esan daiteke faboritoa naizela azken urteetan txapelketak irabazi ditudalako. Partida azkarrak izaten dira eta zorte pixka bat izan behar duzu irabazteko.

**Nola jokatu behar izaten dira xakeko partida azkarra?**

Azkartasunaren eta kalitatezko mugimenduen arteko oreka topatu behar da. Konbinazioak topatu behar dituzu. Denbora gutxi dago eta ez dago gehiegi ikusteko modurik. Ezin duzu pentsatu nola jokatu daitekeen ondo. Esan bezala, zorte pixka bat ere izan behar duzu. ◂

hilberriak ▸



### Jose Luis Eizmendi Galarraga (Ruso)

(2007ko urtarrilaren 5ean hil zen)
–Goian bego–
Zurekin, osaba
joan da gure bizitzaren zati bat
eta gure bihotzetan gelditzen da
zuk emandako guztia

Zure ilobak

Lurperatzea GAUR LARUNBATA izango da Altzon arratsaldeko 13:30ean. Hileta elizkizuna IGANDEAN izango da Altzo azpiko SALBATORE DONEA parroki elizan, arratsaldeko 18:00etan. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▸ gorpua Tolosako beilategian dago

ALTZON, 2007ko urtarrilaren 5ean

▸ hilberriak
▸ urteurrenak
▸ eskertzak
Gipuzkoan 50.000 etxetara
HITZA guztietan prezio beragatik
ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ▸

## Giro eta salmenta erritmo apala nagusi

### Egun bat aurreratu behar izateak eta egun hauetako gastuek eragina izan zuten

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso lasaia izan zen. Egun bat aurreratu behar izateak, eta egun hauetan egin diren ezohiko gastuek eragin handia izan zuten atzoko azokan, eta giro eta, batez ere, salmentaren erritmoa asko apaldu ziren.

Eskaintza, ordea, ez zen batere makala izan, eta nahiz eta urtea aldatu, prezioak berdinean mantendu ziren. Produktu batzuena gainera behera egin zuen, Errezil sagarraren kasu. Joan den astean garestienak 8 eurotan saldu ziren, eta atzo, berriz, 6 eurotan.

Nobedaderen bat ere ikusi genuen. Berdura plazan apaingarri landareen postuetan, aurtengo lehenengo japoniar azaleak ikusi genituen 10 euroko prezioan.

### ATZOKO AZOKA ▸

| | merk. | gares. |
|---|---|---|
| **Berdura plaza** | | |
| Azalea | 5,00 | 8,00 |
| Ziklamena | 5,50 | - |
| Pensamientoa | 1,00 | - |
| Pazko lorea | 5,5 | 7,5 |
| Erromeroa | 4,00 | 6,00 |
| Gerbera | 12,00 | - |
| Salbia | 1,00 | 1,20 |
| **Bertako produktuak** | | |
| Errezil sagarra | 0,6 | 6,00 |
| Kiwia | 3,00 | - |
| Hurra | 2,00 | 3,00 |
| Intxaurra | 2,50 | 4,00 |
| Ziazerba | 1,00 | 1,50 |
| Kalabaza | 1,50 | 3,00 |
| Erremolatxa | 1,50 | 2,00 |
| Porrua | 1,00 | 10,00 |
| Azalorea | 1,00 | - |
| Txikoria | 1,00 | 1,25 |
| **Produktu ekologikoak** | | |
| Sagarra | 2,00 | 3,00 |
| Intxaurra | 4,00 | 6,00 |
| Kalabaza | 1,60 | 3,04 |
| Baratxuri | 1,60 | 6,00 |
| Azenarioa | 2,00 | 2,50 |
| Dilistak | 2,40 | - |
| Arroza | 1,90 | 2,00 |
| Tipula | 1,75 | 2,00 |
| Ahuntz gazta | 3,00 | - |
| Ogia | 2,55 | - |
| Azukrea | 3,35 | - |

TOLOSA ▸ KIROLAK

# Bihar jokatuko dituzte Eguberrietako Shanti Txapelketako finalak

### 09:15ean hasiko da lehendabiziko finala Usabal kiroldegian; 12:30ean egingo dute sari banaketa

IÑIGO TERRADILLOS

Iragan abenduaren 23an ekin zion Eguberrietako Shanti Saria Txapelketak eta bihar amaituko da, bihar jokatuko baitituzte lau finalak Usabal kiroldegian. 09:15ean Zumadi eta Bihurriak alebin nesken arteko finala izango da; 10:00etan, Orixe Gol eta Oyarzabal infantil neskek jokatuko dute; 10:45ean, Intxurre eta Shanti Kirolak infantil mutilen taldeak neurtuko dira; azkenik, 11:30ean, Zuloaga Txiki eta Anoeta A alebin mutilen artekoa izango da. Partida guztiak jokatu ostean, 12:30ean egingo dute sari banaketa Usabalen bertan.

25 urte bete ditu aurten Eguberrietako futbol txapelketa honek. Urtero urtero bezala, bai Tolosako bai eta inguruko herrietako 60 talde inguruk hartu dute parte aurten. Azkenean, 8 jardunaldi eta gero, bihar erabakiko da zein izango diren aurtengo lau talde irabazleak.



Iazko nesken arteko partida bateko une bat. N. LATABURU

### SHANTI TORNEOKO FINALAK ▸

**PARTIDAK**
**09:15.** Zumadi Bihurriak-en aurka.
**10:00.** Orixe Gol Oyarzabal-en aurka.
**10:45.** Intxurre Shanti Kirolak-en aurka.
**11:30.** Zuloaga Txiki Anoeta Aren aurka.

**SARI BANAKETA**
**12:30.** Partiden ostean emango zaizkiei irabazleei dagozkien sariak.

TOLOSA ▸ KIROLAK

## Tolosaldeko Arraun Klubaren aurkezpen estropadak, bihar

### 12:00etan izango dira; Gipuzkoako Batel Ligaxkan lehiatuko diren 10 ontziak ariko dira

I. TERRADILLOS

Tolosaldeko Arraun Kluba 2007ko denboraldiari begira lanean da, eta bihar aurkezpena egingo du jendaurrean. Biharko ekitaldian, batel estropadak izango dira eta bertan ariko dira aurten Gipuzkoako Batel Ligaxkan lehiatuko diren 10 ontziak.

Neska eta mutil, aurten ere ordezkaritza oparoa izango du TAKek, «tradiziorik handieneko kluben pare edo gehiago» izango delarik. Hala, bigarren denboraldia izango du lehiaketa ofizialetan.

Biharko ekitaldiari dagokionez, 11:00etan, Gipuzkoako ligaxkan ariko den talde bakoitzaren aurkezpena egingo dute Zerkausian. Ondoren, 12:00ak inguruan, batel estropadak izango dira Oria ibaian. 5 txandetan banatuta izago da lehia: Infantil-kadete neskak A Infantil-kadete neskak Bren artekoa izango da lehendabizikoa; Kadete mutilak A-Kadete mutilak B bigarrena; Infantil mutilak-Jubenil neskak hirugarrena; Jubenil senior neskak A-Jubenil senior neskak B laugarrena; Jubenil mutilak A-Jubenil mutilak B bosgarren txanda.

Azkenik, estropadak jokatu ostean, 12:45ean, gutxi gorabehera sari banaketa egingo dute.

TOLOSA ▸

## ‘Ingelesa merkataritzan’ ikastaroa

Urtarrilaren 23tik maiatzaren 24ra bitarte *Ingelesa merkataritzan. Hastapen maila* ikastaroa antolatu dute. Eskolak 14:15etik 16:15era izango dira Tolosako Kultur Etxean, astearteetan eta ostegunetan. Ikastaroa Igarondo Tolosako Merkatari elkarteko bazkideentzat irekia izango da, eta baita Ibarrako merkatarientzat eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioko bazkideentzat ere. Ikastaroa doakoa da, eta izen emateko 943 42 55 57 telefono zenbakira deitu beharko da eta Izaskun Insaustirengatik galdetu. Oraindik ere lekua geratzen dela eta merkatariak animatzen dituzte izen ematera.

ALEGIA ▸

## Sharon Stoner eta Keike, gaur Gaztetxean

Gaztetxearen XIX. urteurrenaren harira, gaur 21:00etan zahagi sagardoa izango da eta 23:00etan bi musika talde ezagunen kontzertuak: Sharon stoner eta Keike. Ekitaldi hauekin bukatutzat emango dituzte Gaztetxeko kideek urteurrenaren baitan antolaturiko egitaraua.

TOLOSA ▸

## Merkatu Txikian beherapenak gaur eta bihar

Bihar itxiko ditu ateak Sahararen eta Ekuadorren aldeko Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikiak. Hala, azken egun hauetan beherapenak ezarriko dituzte jendea animatzeko; arropa eta zapata erabiliak euro baten truke jarriko dituzte.

**BERRIA egunkariak itzultzaile-zuzentzaileak behar ditu (erref.: euskara)**

*Baloratuko da:*

- Testuak itzultzen edo zuzentzen esperientzia izatea.
- Ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea.
- Itzulpen masterra egina izatea.

**Interesa izanez gero, bidali curriculuma urtarrilaren 15erako lanpostuak@berria.info helbidera, erreferentzia zehazturik.**

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA
tolosaldeko eta leitzaldeko **hitza**
LARUNBATA, 2007ko urtarrilaren 6a 5

EGUBERRIAK ▸

# Begira, erregeak dira!

## Leitzaldeko eta Tolosaldeko haurrek Meltxor, Gaspar eta Baltasar ikusi eta ukitzeko parada izan zuten atzokoan, herriz herri ibili baitziren hiru erregeak umeen eskariak bildu eta opariak emateko

**E. EZEIZA - M. SOROA**

Urtarrilaren 5a egun berezia izaten da askorentzat, haur txikienentzat, batez ere; urte osoan zain egon ondoren, hain maiteko dituzten Erregê Magoak ikusteko garaia izaten baita. Ondo portatzen dira urte osoan zehar opari ederrak jasotzeko. Luzaroan pentsatzen dute erregeei zer eskatu jakiteko. Eskutitzik politenak aukeratzen dituzte euren nahiak idazteko. Hori horrela izanik, egun berezia izan zen atzokoa, ezbairik gabe.

Meltxor, Gaspar eta Baltasar oinez iritsi ziren eskualdeko herri batzuetara, zaldiz eta behorren gainean beste batzuetara eta baita karrozaren gainean ere hirugarren batera. Bisitatu zuten lehen tokia Iurreamendi adinekoen egoitza izan zen. Haurrak eta aitonamonak, guztiak elkarrekin, kaperan batu ziren Errege Magoei ongietorria egiteko. Beldurtu zen haur txikirik egon bazen ere, poza eta ilusioa nabari ziren haurtxoen begietan eta aurpegietan. Ezin barneratu ikusten ari zirena, ezin sinetsi erregeak aurrean zituztela. Goxokiak eskuan eta nahia ahoan, hizketaldi laburrak izan zituzten Iurreamendira joandako haurrek erregeekin.

Iurreamendi egoitza utzi eta Amezketara egin zuten txangoa hiru erregeek, Ergone baserritik abiatuta eliza pasatuz frontoira abiatu zirelarik. Hura poza Amezketako haurrena erregeak gerturatzen ikusi zituztenean, are gehiago herriko frontoian festa egin zutenean.

Ez zuten luzaroan jarraitu festan erregeek, oraindik ere herri asko baitzituzten bisitatzeko. Hala, Nafarroan egin zuten hurrengo geldialdia Areson lehenik eta Leitzan gero. Aresoarrek sekulako zortea izan zuten, erregeak oso gertutik ikusteaz gain opariak jaso baitzituzten beraien etxeetan. Leitzan, Plazaolako estazio aldetik iritsi ziren Erregeak herrira, eta desfilea eginez Lopeneko atariko jaiotza bizidunera joan ziren. Behin hura bisitatu eta ongietorria jaso ondoren, plaza aldera jarraitu zuten, bertan leitzarrei goxokiak banatu zizkietelarik. Ondoren, Uitzi aldetik euren ibilbidearekin jarraitu zuten aurrera, euren zain zeuden eskualdeko gainontzeko haurrekin egon asmoz.

Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeen magia ahalmenari esker hainbat herritan ordu berean izan ziren atzokoan. Alegia, Anoeta, Berastegi, Irura, Tolosa eta Villabonako haurrek, arratsaldeko zazpietan bete zuten euren nahia, hiru Errege Magoak herriko kaleetan barna ikustea, alegia. Alegian, dantza taldeko txikienak egun osoan zehar kaleak dantzaz alaitu ondoren, desfilean ikusi ahal izan zituzten herritarrek hiru magoak. Anoetan, Basagain menditik barrena jaitsi ziren erregeak herriko txistularien musikaz lagunduta.

Zaldi gainean abiatu ziren Berastegin eta Iruran Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Elizaren atzetik Berastegin, Trinketetik Iruran. Haurren urduritasuna itzaltzerako plazan ziren jada goxokiak banatzen. Tolosan, Izaskundik jaitsi ziren erregeak eta kaleetan barna abiatu ziren Zerkausian haurrei harrera egiteko.

Karrozen gainean ikusi zituzten Villabonako haurrek Meltxor, Gaspar eta Baltasar Amasatik abiatuz herrian zehar desfilea egin baitzuten Errebote plazaraino. Bertan Jaiotza bizidunean agurra egin ondoren Asteasu eta Berrobira abiatu ziren Erregeak ibilbidea amaitzeko.

Larte eta Seskea Berri baserritik jaitsi ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar Berrobiko haurrak agurtzera. Plazaraino herriko trikitilari eta panderojoleez lagundurik egon ondoren, opariak banatu zizkieten herritarrei. Azkenik, Asteasuko Elizmenditik pasa ondoren herriko plazara iritsi ziren hiru magoak. Bertan, jaiotza bizidunari harrera egin ondoren opariak banatu zituzten haurren artean.



Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak Iurreamendi egoitzan izan ziren atzo Tolosaldeko haurrei harrera egiteko; irudian, haur bat Baltasar erregeari oparia eskatzen belarrira. MADDI SOROA

**iragarki laburrak** ▸

**LANA**
**Lorazaina.** Tolosaldeko enpresa batek lorezainak behar ditu. Interesatuek deitu 615 78 45 76 telefono zenbakira.
**Banatzailea.** Baserriko produktuak banatzeko banazaile bat behar da. 943 68 22 14.

**SALGAI**
**Autoa.** BMW M3a salgai. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tetxua. Egoeras oso onean. 14.000 euro. Interesatuek deitu honako telefono zenbakira: 943 65 41 43.
**Loradenda.** Loradenda eskualdatzen da Lasarten. 30 urte baino gehiagoko jarduera, materiala eta guzti. Telefono zenbakia: 943 36 75 75 edo 626 50 56 89.

## Jesusen jaiotzaren eskenatokia aldatuz doa

**Erredakzioa** ▸ Eguberrien eta tradizioaren parte dira jaiotzak. Hala, urterik urte zenbait herritan lehiaketa bat antolatzeko aitzakia bihurtu dira. Horren adibide dira, Irura eta Tolosako Jaiotza Lehiaketa. Haurren originaltasuna, trebetasuna, lana... saritzen dira norgehiagoka honetan. Imajinazioa martxan jarriz, mota guztietako eta gisa ezberdinetako pertsonaiak asmatzen dituzten etxeko txikiek. Betiko eskenatokiari bira emanaz, Jesusen jaiotzaren interpretazio ezberdin bat ematen dute.

Tolosakoan 16 gazte koadrilek hartu zuten parte eta atzo erabaki zuen epaimahaiak zein zen denetan ikusgarriena. Erregeen desfilea amaitzearekin batera, egunkari honetako erredakzioa itxirik zegoen garaian eman zuten jakitera irabazlearen izena Zerkausian. Jaiotza guztiek hartu zuten parte desfilean, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoen alboan pasieran ibili zirelarik. Ibilaldia amaitu ondoren eta sari banaketa burutu arte jaiotzak Plaza Zaharrean egon ziren ikusgai.

### Jakiekin egindako jaiotzak

Iruran ere ospatu zen jaiotza lehiaketa, non, ogia, hurrak, eta gozokiak erabiliz jaiotza ikusgarriak eraiki zituzten. 3 eta 16 urte bitarteko 16 haurrek hartu zuten parte lehiaketan. Batzuk taldean egin zuten, eta beste batzuek bakarrik. Hasiera batean hiru mailatan banatu behar baziren ere lehiakideak, azkenik bitan bakarrik izan ziren. Ohiturari jarraituz, gaztetxoek muntatu behar izan zuten jaiotza eta figurak ere beraiek egin zituzten.

Atzo arratsaldean eman zituen jakitera epaimahaiak irabazleen izenak. Sarituek Copitek eta Arteka dendetako kopuru ezberdinetako erosketa txartelak eskuratu zituzten. Zaharrenetan, hau da, DBH mailakoen artean, Jon Ander Maiz izan zen lehena, eta Irene Retegi bigarrena. Azken honek, orijinaltasun handiz, oparitako kaxa bat egin zuen, lazo eta guzti, eta alde banatan, erregeen, olentzeroren eta jaiotzaren irudiak marraztu zizkion. Bestalde, hurrenez hurren, 72 eta 48 euroko txekeak eraman zituzten.

Maila ertainekoetan, Lehen Hezkuntzakoen artean, Maddi Xiao, Iosune Etxeberria eta Naroa Lasa izan ziren garaile, eta hauek 48 euroko saria eraman zuten. Bigarrenak berriz, bi neskato izan ziren, Igone Gutierrez eta Lore Amenabar, hauek, 36 eurokoa eskuratu zutelarik. ◂



Irurako 2007ko jaiotza lehiaketako irabazleak. ESTI EZEIZA



Erregeekin batera desfilean joan ziren jaiotza lehiaketakoak. ESTI EZEIZA



Leitzan, desfilean ibili ondoren Jesus haurtxoa agurtzera joan ziren hiru Errege Magoak. NAIARA GARZIA



Irurara zaldiz etorri ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak. MADDI SOROA

**ALEGIA** ▸ ERAKUSKETA



**Udazkena.** Kasu honetan, erliebea kanpoaldera baino, barrualdera dago landuta; hau da, irudiak edo hostoak, maila sakonenean daude eta hondo zurizka kanporago dago. N. URBIZU



**Kabia.** Naturako elementu biziak erabili ditu kabia egiteko orduan ere. Benetazko lastoa ipini du kabia izango zen horretan. Erliebeak momentu batean kontaktua galdu du koadroarekin berarekin. N. URBIZU



**Arrainak.** Arrainen ezkaten dizdira irudikatu nahian, erabili dituen koloreetan bizitasuna gehitu dio artistak. Simetria zainduak, eta borobilak eta angeluak konbinatu egiten ditu. Dena, nolabaiteko bizkarrezurrean dauden 6 koloreekin osatu du koadroa. N. URBIZU



**Leihoa.** Erliebearekin jolasten du Ana Jesus Ansorenak: leihoaren azpian balkoia dago eta daukan erliebearekin koadro izateari ia utzi egiten dio: leihoak irekita, badirudi etxebizitzako txokoren bat dagoela. Koadro hau egilearen kuttunetako ba da. N. URBIZU

# Elementu bizietatik eta elementu biziekin

Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika koadro «erdi biziak» ikus daitezte jubilatuen tabernan hilaren 14ra arte

NEREA URBIZU

Alegiko jubilatuen tabernan erakusketa berri bat dago. Oraingoan, Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika koadroak daude ikusgai, hilaren 14ra arte. Ez da artista honen lanak Alegiko jubilatuen tabernan lehen aldiz daudena, duela 10 bat hilabete izan baitziren ere. Oraingoan, ordea,bere lan berrienak dira, gauza ezberdinak ikus daitezkeenez.

Naturako elementuak irudikatu ditu zeramikarekin, eta bere aurreko erakusketan ez bezala, naturako elementu errealen bat edo beste erabili du: lastoa ipini du kabi batean, esaterako. *Hostoak* izenekoarekin ere benetako zuhaitzetako hostoak erabili ditu, itxura eta tamaina erreala irudikatzeko. Dizdirekin ere jolastu du, esaterako, *Ihintza* hobe irudikatzeko, edo *Arrainak* egiteko. Hauetan oso argi ikusten dira: «Horretarako beira zatitxoak erabili ditut», Ana Jesus Ansorenak berak esan zuen bezala.

15 lan daude hormetan zintzilik, bakoitzak bere edertasuna eskainiz. Animaliak eta kalean aurki daitezkeenak irudikatu ditu zeramikarekin, baina trebea izan da ere beste gai ez horren ohikoak eginez. Horietako kasu bat, *Pentsalaria* dugu. Honelako bi utzi ditu Alegiko jubilatuen tabernan. *Lila* izeneko bi koadro badira, natura elementuetatik aldentzen direnak. «Bi horiek abstraktoak dira, bai gai aldetik eta egitura aldetik ere». Baina berezitasun bat dute biek; izan ere, material berri bat erabili du horretarako: «Zaku oihala hartu eta buztina hezea zegoenean haren gainetik pasaz, egitura aldatu egin zaio: badirudi sutearen larrua dela, baina zakuak dituen zulotxoek egina da».

### Ansorenaren estiloa

Ana Jesus Ansorenak, arestian aipatu bezala, «bizitza duten gauzak» erabili ditu, hala nola, *Udazkena* koadroa egiteko, mendian hartutako hostoekin. Hauek koadroan jarri aurretik «liburu batean sartu nituen lehortzeko, eta prest zeudenean jarri egin nituen».

Aurreko batean Ana Jesus Ansorenak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZArekin hitz egin zuenean esan zuena errepikatu zuen: «Zeramikaz egindako koadroa labean sartu, eta labea ireki behar den momentua magikoa da: ez dakizu zer atera behar den». Izan ere, «lan handia dago horren atzetik. Zuk denbora preziatu batean egin duzu koadro bat, baina gero, labea, beroa eta zeramika bera oso apetatsuak, guratsuak izan daitezke, eta labean sartu duzunak ez du ateratzen duzun horrekin zerikusirik: batzuk bota behar izaten dira».

Iazko iraila eta uztaila bitartean egindakoak dira Alegiko jubilatuetan dauden koadroak. Han, hilaren 14ra arte egongo dira ikusgai nahiz salgai. Lanbroan ere izango dira hilabete honetan, eta beti bezala, Tolosako Borda inmobiliarian urte osoan zehar artistaren zeramika koadro ezberdinak daude erakusgai.

IXIAR ARTEAGA
ABOKATUA
HERENTZIAtan esperientziduna
Tel.: 618 13 00 81

**LEITZA** ▸ PILOTA

# Pilota jaialdia izanen da gaur, Amazabal pilotalekuan

## Bi partida jokatuko dituzte Frontis enpresako pilotariek, eta hauen artean, Bengoetxea VII.a leitzarra izanen da



Bengoetxea VII.a 2006ko Elduaingo festetan jokaturiko partida batean. N. LIZARTZA

NAIARA GARZIA

Gaur, pilota jaialdia izanen da Amazabal pilotalekuan, Frontis taldeak antolatuta, 18:00etatik aurrera. Bertan bi partida jokatuko dituzte enpresa honetako pilotariek. Aurrena, Urdaniz eta Elola Lopez Aldai eta Ruiz de Larramendiren aurka ariko dira eta gero, Armendariz eta Bengoetxea VII.a Nagoreren eta Gorritiren aurka. Txapelketak txapelketa, gaurkoan ez da ezer jokatuko, pilotaz gozatzeko aukera ezinhobea izanen da, beraz.

Jaialdia Migel Mari Aldaiak antolatu du. «Asteartean edo deitu zidaten, jaialdia antolatzeko eskatuz. Hortik aurrera udaletxekoekin hitz egin dut, kiroldegiko arduradunekin...». Jendearen bertaratzeari dagokionez, «200 pertsonatik gora» ez dituela espero azaldu du Aldaiak.

Frontis enpresak, Ibai Bengoetxeak azaldu duen bezala, «enpresa barruko partidak antolatzen ditu beti», eta horrexegatik dira pilotari guztiak enpresa berekoak. Pilota enpresa hau beharbada ez da Aspe eta Asegarce bezain ezaguna, eta bertako pilotariei dagokienez, Bengoetxea VII.ak adierazi duen bezala, «gehienak Nafarroakoak gara, baina badira Errioxakoak (Espainia), Bizkaiakoak eta baita Gipuzkoakoak ere». Euskal Herrian ospatu berri den Lau t'erdiko Txapelketaren oihartzunetik urrun, Frontis enpresako pilotariak Euskal Herritik kanpo ere txapelketa ugari izaten dituzte. «Azkena Gaztela eta Leonen (Espainia) izan zen, Salamanca ondoan. Hiru asteburutan jokatu zen, lehendabizi final-laurdena, gero finalerdia eta finala. Uste baino jende gehiago hurbildu zen gu ikustera», dio Bengoetxea VII.ak.

### Bengoetxea VII.a, Labriten

2007ko Binakako Txapelketa atzo hasi zen Beotibarren, arratsaldean Olaizola I.a eta Belokik Gonzalez eta Pascualen aurka jokatutako partidarekin. Txapelketa hasi aurreko kiniela eta zalapartak alde batera utzita, jokua hasi da, eta gaur, Bengoetxea VII.aren txanda izanen da, Iruñeko Labrit pilotalekuan Ruizekin ariko baita Titin III.a eta Lasaren kontra.

Bengoetxea VII.arena txapelketako hirugarren partida izanen da, Beotibarren atzo jokatu ziren bi partiden ondoren. Asteazkenean egin zuen leitzarrak material hautaketa Labriten bertan, Titin III.a, Lasa, eta Ruizekin batera.

**IBAI BENGOETXEA** ▸ PILOTARIA

# «Frontoi batean jokatu edo beste batean, ikaragarrizko aldea dago»



N. GARZIA

Ibai Bengoetxeak txikitatik pilota oso gustuko izan du eta pilotari famili honetan 7.a da.

**Zenbat denbora daramazu Frontis enpresarekin?**
Urrian urtebete egin nuen. Aurretik amateur gisa aritu nintzen. Txikia nintzenetik beti ibili naiz pilotan.

**Euskal Herrian jokatzeaz gain, kanpoan ere ibiltzen zarete, ezta?**
Bai, udazken honetan Aragoin (Espainia) txapelketa bat jokatu dugu, eta Gaztela eta Leonen, beste bat.

**Jendeak zer moduz hartzen zaituzte kanpoan?**
Ba oso ongi, askotan hemen baino hobekiago. Salamancan, esaterako finalera jende asko etorri zen.

**Banaka edo binaka aritzea, zer duzu nahiago?**
Gustukoen binaka aritzen naiz. Lau t'erdian ere banaka gustura ibiltzen naiz, baina frontoi osoa denean ez.

**Gaurko partida gogorra izanen al da?**
Bai, Armendariz eta Gorriti enpresako atzelaririk hobentsuenak dira.

**Nola entrenatzen duzu?**
Astearte goizetan Altsasun entrenatzen dugu eta ostegunetan, berriz, Labriten. Honetaz gain, astean pare bat aldiz kiroldegira joaten naiz.

**Urteko ze garaitan izaten dituzu pilota partida gehien?**
Udan. Joan den urtean, adibidez, abuztuan 11 partida inguru jokatu nituen. Negua eskasagoa izango zela uste nuen, baina azkenean ia astebururo jokatu dut.

**Frontoi batetik bestera alderik nabaritzen al duzu?**
Bai, handia. Frontoi batean jokatu, edo beste batean, ikaragarrizko aldea dago. Materialak zerikusirik badu, baina badago beste zerbait: zu, une horretan, nola sentitzen zaren frontoian.

**Non aritzen zara gustukoen?**
Leitzan. Niretzat egokia da, kontrakantxa txikia baitu. ◂

**LEITZA** ▸

## Urtarrilean berriro zinema martxan, beste 2 filmekin

N. GARZIA

Aurreko urtean zinemak izandako «harrera ona» ikusirik, urte berriaren etorrerarekin zinemari eustea erabaki dute eta, bi film ikusteko aukera izanen dute herritarek urtarrilean.

Denboraldi berri honetarako, bi pelikula oso desberdin botako dituzte. Lehenengoa Pedro Almodovarren azken filma da, *Volver*, eta, urtarrilaren 12an eta 14ean izanen da ikusgai. Bigarrena berriz, mundu globalizatu honetan herrialde ezberdinetako musikak ezagutzeko euskal zinemaren apustu interesgarri bat da, *Nomadak Tx* delakoa, eta urtarrilaren 19an eta 21ean botako dute, ohiko orduan: ostiralean, 22:30ean eta igandean, 19:30ean.

**TELEFONOAK** ▸

**Larrialdiak.** ((112))

**Osasuna.**
- **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- **Asteasu.** Medikua: 692423
- **Baliarrain.** Medikua: 889003
- **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- **Bidegoian.** Medikua: 681134
- **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- **Orendain.** Medikua: 655595
- **Orexa.** Medikua: 682228
- **Tolosa.**
  - Anbulatorioa, larriald:461111
  - San Esteban: 006800
  - Gernikako arbola: 006900
  - Amarozko dispen.: 672637
  - Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - DYA: 672536
  - Gurutze Gorria: 674888
- **Villabona.** Anbulat.: 006970
- **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**
- Renfe: 902 24 02 02
- Donostiako autobusa: 361740
- Tolosaldea bus: 650621
- Leitzaran autob.: 948 221015
- Taxia: 670420
- Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**
- Ertzaintza: 538820
- Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- Tolargi: 650016
- Iurramendi egoitza: 670325
- Tolosa gasa: 675320

tolosaldeko eta leitzaldeko **hitza**

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▸ 2007ko urtarrilaren 6a, larunbata ▸ V. urtea

**ARGITARATZAILEA.** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**LEGE GORDAILUA.** SS-0398-03
**ZUZENDARIA.** Noelia Lataburu
**EGOITZA NAGUSIA.** Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa
**TELEFONOA.** 943 65 56 95 **FAXA.** 943 65 00 18
**LEITZA.** Herriko plaza 1. 687 410 118
**E-POSTA.** tolosaldean@tolosaldekohitza.info
**WEBGUNEA.** www.tolosaldekohitza.info

**TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.KO KIDEAK:**
BERTAKO HEDABIDEAK
eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko 77 gizarte eragile

**HITZA-K BAI EUSKARARI**

**Zuzendariordea.** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea.** Jon Mujika. **Publizitatea.** 661 678818. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
**Tolosa.** 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldekohitza.info. **Villabona-Aizt.** 687 410022. villabona-aiztondo@tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea.** 687 410022 anoetaldea@tolosaldekohitza.info. **Ibarraldea.** 687 410032. ibarraldea@tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldekohitza.info. **Leitzaldea.** 687 410118. leitzaldea@tolosaldekohitza.info.

**'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK** **udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil. Gipuzkoako Foru Aldundia

**GAURKO EGURALDIA** goizez arratsaldez beroena **15** hotzena **12**

**BIHARKO EGURALDIA** goizez arratsaldez

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...) **902 82 02 01**

# «Nork irentsi du baba?»

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▸** Errege Magoen etorrerarekin batera, errege-opilak izango dira gaur bi eskualdeetako mahai askotan; salmentak nabarmen igo dira





Errege-opilak barra-barra saldu ziren atzo bi eskualdetan. Ezker-eskuin, Leitzako eta Tolosako dendak. N. GARZIA / E. EZEIZA

**ERREDAKZIOA**

Opariak eta ilusioa ez ezik jaki berezi bat ere ekartzen dute gaurko egunean Orientetik bidaia luzea egiten duten hiru Errege Magoek: errege-opila. Borobil itxurakoa, kremazkoa, natazkoa, handiak, txikiak,… Askotarikoak aukeran baina ezaugarri berberarekin: barnean sorpresa dute. Familia eta lagun guztiak mahai inguruan biltzen dira baba zeinek aterako beldurrez. Ahora eramaten duenak opila ordaindu beharko du.

Gozotegietan topa daitezke errege-opilak; hori dela eta, ilara luzeak sortu ziren atzokoan Tolosaldeko eta Leitzaldeko denda gehienetan. Ohitura sendoturik dago gure bi eskualdetan eta jende ugarik jaten du opil borobila Errege egunean. Gozotegietan adierazi dutenez, «askok dira aurretik enkarguz errege-opila eskatzen dutenak». Hala, «jendeak nahiago du barneko osagaia aukeratzea, bertan ditugunak erostea baino». Jaki hau erosterako garaian, orokorrean erosleak nahiago du denda berezituetara jo, «hemen produktu naturala saltzen baitugu, bertan eginikoa». Datuen arabera, %10a igo da gozo hauen salmenta azken urtean.

### Leitzarrak ere zaleak

Leitzara ere heldu da errege-opilen usadioa. Garai batean ohikoa ez bazen ere, herriko gozotegietan ere ikus daitezke dagoeneko. Hemen ere barra-barra saltzen dituzte opilak. Hala ere, hilaren 6an bertan gehiago saltzen dituztela azaldu dute Zortzikoenea gozotegikoek. «Lehen natazkoak bakarrik saltzen genituen, orain berriz trufazkoak eta guztiz».

Gozoki batek ez omen du minik ematen; ziur errege-opilak ere ez duela halakorik emango, ez behintzat ahosabaian. On egin, beraz, gaur mahai gainean opilen bat duzuenontzat!

## AGENDA ▸

### DEIALDIAK

**Alegia.** Gaztetxearen XIX. urteurrena izanik, 21:00etatik aurrera Gaztetxean zahagi sagardoa eta 23:00etan Sharon Stoner eta Keike taldeen kontzertuak izango dira.
**Tolosa.** Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko dute, 12:30ean, Udal musika Eskolako aretoan.
**Anoeta.** Gazte Asanbladak afaria antolatu du. Ondoren Txirrisklas Festa egingo dute eta 23:00etatik aurrera Skamatxin, Rufus Rei eta Jo ta akatuko haut taldeen kontzertua.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Betizu eta Xangaduko misterioa* filma gaur ikusgai, Leidor aretoan, 17:00etan.
**Tolosa.** *Infiltrados* filma gaur ikusgai, Leidor aretoan, 19:30ean eta 22:30ean.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Alegiko jubilatuen tabernan, urtarrilaren 14ra arte.
**Amezketa.** Bihar arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrutxaga margolariaren margolanak, Amezketako tabernan.
**Tolosa.** Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian urtarrilaren 20ra arte.
**Tolosa.** Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da hil honen 13a bitarte Aranburu Jauregian.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.

### IRRATIA

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**
**11:00-14:00.** *Hitzak hegan.*

**Goiko irratia (107.0 FM)**
**12:00.** *kornerra.*

▸ **HITZA**k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▸



**URTE ASKOAN**
**Ana Jesus Argote (Belauntza).** Zorionak eta urte askotarako txipirona!



**URTE ASKOAN**
**Ane Aranburu (Tolosa).** Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**
**Maria Dolores.** Atzoko partez muxu haundi bat senarraren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza agurren tartea**
**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**